



VERTER RECYCLING-EK ADOSTU DU SOZIETATEA DEUSEZTATZEA ETA LIKIDAZIOARI EKITEA

Zaldibar, 2021eko urriaren 20a.- VERTER RECYCLING 2002 SLko bazkideek batzar nagusian aho batez adostu dute sozietatea deuseztatzea eta likidazio-aldia abiaraztea; beraz, likidatzaileak izendatu dituzte, legeari eta sozietatearen estatutuei jarraikiz. Akordioa behar bezala jaso dute Merkataritza Erregistroan eta Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratu dute.

Merkataritzako legeriaren arabera hartu dute erabakia, epe guztiak zorrozki betez. Hala, agintzen duen legez, egiteke dauden operazio guztiak amaituko dituzte, eta sozietatea likidatzeko behar diren operazio guztiak egingo dituzte. Ondorioz, kreditu sozialak kobratu eta zor sozialak ordainduko dira, legearen irizpideen eta betekizunen arabera.

Halaber, likidazio-prozesuan, sozietateak bere betebeharrak beteko ditu, baita legeak ezartzen dituen informazio- eta publikotasun-betebeharrak eta, oro har, aktiboak egiteari eta hartzekodunei ordaintzeari dagozkien guztiak ere.

Verter Recycling enpresaren onlineko oharra: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga

Tel.: 94 415 86 42